

- Ikasturtean zehar ikusitako pelikulak:

Lehen Hezkuntzakoak



ALBERT

Albert mutiko bihurri eta traketsa da. Herriko Leopoldusen monumentua lurrera botako du nahi gabe eta bizilagunak haserretu egingo dira berarekin. Egindako kaltea konpontzeko, benetako globokapitain bat ekarri nahiko du herrira eta Egon laguna eta biak abentura ero batean murgilduko dira. Karsten Killerich daniarraren lan berriak bidaia zirraragarria kontatuko du.



ASTERIX & OBELIX. Jaiakoen Egoitza

Kristo aurreko 50. urtea. Zesarrek konkista-gosea du eta Britania herrialde misterioitsua inbaditzea erabakitzen du. Asterixek kanala gurutzatzen du bere lehengusu txikiari laguntzeko Julio Zesar erromatar inbaditzaileari aurre egiten.



GRUFALOA

Sagu txiki bat poz-pez dabil basoan. Gosetuta dago eta sabela betetzeko hurren bila joatea erabakitzen du. Bidean, bera bezain gosetuta dauden azeriarekin, hontzarekin eta sugearekin topo egin du. Hirurek etxera gonbidatu nahi dute bazkaltzera, baina sagua ez da fio eta modu atseginean ezetz esaten die haien gonbidapenei; izan ere Grufaloarekin hitzordua du. Baina zer da grufalo bat?



HARPETARRA

Dug harpetarra eta Urde basurdea dira abentura honetako protagonistak. Bi zibilizazio, Harri Arokoa eta Brontze Arokoa, lehian ari dira historian bitartetxo bat lortzeko. Nola? Ba euren arbasoek irakatsi zieten moduan: "joko sakratuarekin". Historian jokatu den partidarik epikoena izango da! Jokoan ez dago kopa bat, baizik eta Dugen tribuak bizirik jarraitzea. Euren basoa arriskuan ikusten baitute Brontze Aroko gizon maltzur eta bilau bat, Jaun Nooth, heltzean.



HEROIAK

Ezustekoz, irudimenez eta sormenez betetako film laburren sorta polit eta dibertigarria. Amankomunean dutena: heroi protagonista txikiak, bizitzako erronkei modu burutsuan aurre egiten saiatzen direnak.



LUIS eta ESTRALURTARRAK

Luis 12 urteko mutila da. Denbora asko pasatzen du bakarrik, ez du lagunik eta bere aitak, Armin Sonntag ufologoak, ez du sekula harentzako denborarik izaten. Espazioan bizitza adimenduna badela frogatzearekin itsututa, teleskopiotik begira ematen ditu gauak eta lotan egunak. Egun batean, hiru estralurtar xeble bere etxe-atarian eroriko dira teledendan ikusi duten "Nubbi- Dubbi" izeneko masaje-alfonbraren bila. Mutila eta estralurtarrak ados jarriko dira elkarri laguntzeko.



MAYA ERLEA

Jaioberritan, Maya erlea zurrunbilo bat da eta ez ditu erlauntzako arauak jarraitzen. Arau hauetako bat belarditik haratago bizi diren liztorrekin ez fidatzea da. Ezti preziatua desagertzen denean, liztorrak susmagarri nagusiak dira, eta erleek Maya bihurria hauen konplizea izan dela uste dute. Bere lagunetako inor ez da haren alde agertuko... Willy izan ezik. Elkarrekin abenturaz beteriko bidaia hasiko dute lapurraren bila, erleen eta liztorren arteko borroka piztea sahiestuz.



OIN HANDIREN SEMEA

Adam mutiko jatorra misio epiko batean abiatu da misterio bat argitzen saiatzeko: aitaren desagertzea. Azkenean aita elezaharretako Oin Handi berbera dela jakingo du eta urteetan egon dela oihanean ezkutatuta bere burua eta bere familia babesteko. Izan ere, genetika-laboretegi batekoek, lotsarik gabe, esperimentuak egiteko erabili nahi zuten. Adam laster ohartuko da berak ere baduela DNA berezia. Imajina ezinezko super-ahalmenak tarteko, aitarekin elkartu beharko du familia babesteko.



SAGU & PAGU

Baziren behin baso eta landa ederrak. Haietan izaki guztiak pozik bizi ziren elkarrekin. Baina lehortea heldu da. Eskualdeko izakiak egarriz eta goseak hilik egon dira luzaro. Zerbait egitea erabaki dute, konponbideren bat aurkitu, egoera negargarri honi amaiera emateko. Dortoka batek gidatuta, altxorraren bila doaz, hark orain dauden egoera larritik aterako dituen itxaropenarekin. Bidaiaren etapa bakoitza abentura berri bat izango da talde bitxi honentzat.



ZIPI & ZAPE


Gabonak iritsi dira eta Zipi eta Zapek bihurrikeria handi bat egin dute. Oraingoan, gurasoek oporrik gabe utzi dituzte eta haiek kontrolpean izan nahian beraiekin itsas bidaiara aspergarri batera eraman dituzte. Beren gozamenerako, ordea, helmuga, urruneko uharte bat da. Beraien gurasoen desagertzeak isla misteriotsuan bizi diren biztanleak gordetzen duten sekretuarekin zerikusia duela konturatuko dira.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak



1993ko UDA

Frida sei urteko umea da. Ama hil egin zaio eta adoptatu berri duen familiarekin lehenengo uda emango du hurbileko girotik urrun, naturan. Frida egoera berrira egokitu beharko du.



HANDIA

Lehen Karlistaldian borrokatu ostean, Martin Gipuzkoako bere etxera itzuliko da, eta han, harrituta, bere anaia gazte Joakin ohikoa baino askoz ere handiagoa dela aurkituko du. Mundu osoak Lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izango duelakoan, bi anaiak bidaiari luze bati ekingo diote, Europan zehar. Bidean, ambizioak, diruak eta ospeak betiko aldatuko dute familiaren patua. Benetako gertakarietan oinarritutako istorio bat.



HORMAN ERLOJUA DUEN ETXEA

Magiaz beteriko abentura hau 10 urteko Lewis mutikoa bere osaba Jonathanen etxe zahar eta misteriotsura doanean hasiko da. Hortik aurrera, etxe barruan gauza harrigarriak gertatuko dira. Osabak sorginkeriazko mundu miresgarri bat erakutsiko dio eta mundu horrek bizia hartuko du Lewisek ustekabeen hilak esnatzen dituenean.



JUST CHARLIE

Charlie, futboleko izarra, mutil gorputz batean harrapatuta dagoen neska bat da. Bizitza berak sentitzen duen moduan bititza erabakitzen duenean bere taldekide eta aitak bizkarra emango diote eta bititza berri bati hasiera eman beharko dio bere kabuz. Baina jarraituko al du futboleko jokatzeko?



PAN

Peter 12 urteko mutil bihurria da. Londresen umertzurtz-etxe goibel eta triste batean bititza guztia pasatu ondoren, gau batean bidaia zoragarri bat hasten du fantasiaz beteriko mundura, Sekula Betira. Bertan, pirata, gerlari eta maitagarriekin abentura ugari biziko ditu, hil ala biziko borroketan parte hartuko du, bere amak umertzurtz-etxean zergatik utzi zuen deskubritzen saiatuko da, eta batez ere, lurralde magiko horretan bere tokia bilatzen ahaleginduko da.



WONDER

Auggie Pullman, aurpegi-malformazio batekin jaiotako umea da. Orain 10 urte ospitalez ospitale igaro ondoren eta etxean epe luzeak egon ondoren, erronka izugarriari egin beharko dio aurre: eskolara lehen aldiz joateari. Bere gurasoen laguntzari esker, Auggie bere klase-kide eta irakasle berrien artean beste mutikoak bezalakoa izaten saiatuko da, duen itxura duela ere.



ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK IMMIGRAZIOA FILM LABURREAN (FILMAZPIT)

Ikasturte honetan Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformarekin elkarlanean, immigrazioari eta errefuxiatuei buruzko atala garatu dute. Atala zenbait film laburrez osatuta dago, immigrazioaren eta etorkinen gaia lantzeko.

• Eskainitako saioak:

- Lehen Hezkuntza:

Filma	Saio-kop.	Eguna
Albert	6 saio	2018-11-26 eta 30; 2018-12-03 eta 04; 2019-02-20 eta 2019-03-15
Asterix & Obelix	2 saio	2018-10-10 eta 11
Grufaloa	4 saio	2018-11-16 eta 2018-11-19; 2019-04-30 eta 2019-05-02
Harpetarra	3 saio	2018-12-12, 13 eta 14
Heroiak	2 saio	2019-04-30 eta 2019-05-02
Luis eta Estralurtarrak	3 saio	2019-05-20, 21 eta 22
Maya Erlea	2 saio	2018-10-10 eta 2018-10-11
Oin Handiren Semea	2 saio	2019-02-26 eta 27
Sagu & Pagu	3 saio	2019-02-18, 19 eta 20
Zipi & Zape	5 saio	2019-01-23 eta 24; 2019-02-18 eta 27; eta 2019-05-02

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Filma	Saio-kop.	Eguna
1993ko Uda	Saio 1	2019-02-23
Handia	2 saio	2019-03-15 eta 2019-05-02
Horman Erlojua duen Etxea	Saio 1	2019-04-26
Just Charlie	Saio 1	2019-06-12
Pan	2 saio	2018-11-30 eta 2018-12-03
Wonder	2 saio	2018-10-30 eta 31
Ongi Etorri Errefuxiatuak	3 saio 1	2018-10-28, 28 eta 29

• Parte hartu duten ikastetxeak:

1. CEIP ARANGOITI HLHI
2. CEIP BASURTO HLHI
3. CEIP BIRJINETXE HLHI
4. CEIP DEUSTO HLHI
5. CEIP ELEJABARRI HLHI
6. CEIP GABRIEL ARESTI HLHI
7. CEIP INDAUTXUKO ESKOLA HLHI
8. CEIP ING. JOSE ORBEGOZO GOROSTIDI HLHI
9. CEIP JUAN M. SÁNCHEZ MARCOS HLHI
10. CEIP LUIS BRIÑAS-SANTUTXU HLHI
11. CEIP MAESTRO GARCIA RIVERO HLHI
12. CEIP MINA DEL MORRO HLHI
13. CEIP MIRIBILLA HLHI
14. CEIP MUJIKA HLHI
15. CEIP PÍO BAROJA HLHI
16. CEIP SIETE CAMPAS-ZORROZGOITI HLHI
17. CEIP SRA. VDA. DE EPALZA HLHI
18. CEIP TXURDINAGA HLHI
19. CEIP URIBARRI HLHI
20. CEIP ZURBARAN HLHI
21. CEIP ZURBARANBARRI HLHI
22. CPEI SAN JOSE-URDANETA HHIP
23. CPEIPS ABUSU IKASTOLA HLBHIP
24. CPEIPS AMOR MISERICORDIOSO HLBHIP
25. CPEIPS ÁNGELES CUSTODIOS HLBHIP
26. CPEIPS ARTXANDAPE IKASTOLA HLBHIP
27. CPEIPS BERRIO-OTXOA HLBHIP
28. CPEIPS CALASANCIO HLBHIP
29. CPEIPS EL AVE MARÍA HLBHIP
30. CPEIPS ESCLAVAS SC - FÁTIMA HLBHIP
31. CPEIPS HIJAS DE LA CARIDAD-N. SRA DE BEGOÑA HLBHIP
32. CPEIPS IKASBIDE HLBHIP
33. CPEIPS KIRIKIÑO IKASTOLA HLBHIP
34. CPEIPS LA INMACULADA-HIJAS DE JESÚS HLBHIP
35. CPEIPS NTRA. SRA. DEL CARMEN HLBHIP
36. CPEIPS NTRA. SRA. DEL PILAR HLBHIP
37. CPEIPS PUREZA DE MARÍA HLBHIP
38. CPEIPS SAGRADO CORAZON HLBHIP
39. CPEIPS TRUEBA DE ARTXANDA HLBHIP
40. CPEIPS URRETXINDORRA IKASTOLA HLBHIP
41. CPES OTXARKOAGA BHIP
42. CPI DEUSTUKO IKASTOLA IPI
43. CPI KARMELO IKASTOLA IPI

ZINEMA EUSKARAZ •

- 44. IES ARTABE BHI
- 45. IES ESKURTZE BHI
- 46. IES LUIS BRIÑAS-SANTUTXU BHI
- 47. IES MARTÍN DE BERTENDONA BHI
- 48. IES REKALDEBERRI BHI
- 49. IES SOLOKOETXE BHI
- 50. IES ZORROZA BHI

- Parte hartu duten haur eta gazte kopurua:

Lehen Hezkuntza: 8.220

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 2.096

GUZTIRA: 10.316

- Enpresa arduradunak:

1.- Irudi Biziak

2.- Tinko Euskara Elkarte